

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko maiatzaren 15eko erabakiaren laburpena: horren bidez, Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko etxebizitzak eta egoitza-eraikinak eraberritzeko laguntza-deialdia, 2026-2027 aldirako onetsi zen

BDNS(Identif.): 910375.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/910375>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Deialdiaren 5. paragrafoan aipatzen diren diruz laguntzeko moduko ekintzei ekin dieten pertsona fisikoak, baldin eta deialdiaren 4. paragrafoan adierazitako aplikazio-eremuaren barruan badaude. Nolanahi ere, jabeen erkidegoa ordezkatzeko duenak eskatu beharko ditu elementu komunetan esku hartzeko laguntzak, jabetza horizontalari buruzko araudian ezarritako baldintzetan, eta deialdiaren baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena. Helburua

Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko obrak finantzatzeko laguntzak emateko prozedura arautzea; zehazki, 1. eranskinean jasotako eremuan dauden eraikinetan.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

2.000.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2027ko abenduaren 31ean amaituko da edo aurreko egun baliodunean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 26a

Hirigintzako zuzendari nagusia

MIKEL INCHAURBE OCERINJAUREGUI